



---

SAILBURUA  
LA CONSEJERA

---

**AGINDUA, 2018KO MARTXOAREN 23KOA, LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUARENA. HONEN BIDEZ, BIZKAIAN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA JASOTZEN DUEN KOMUNITATEARI FUNTSEZKO ZERBITZUAK EMATEN JARRAITZEA BERMATZEN DA.**

ELA, LAB eta UGT sindikatuek grebara deitu dute Bizkaiko Etxez Etxeko Laguntzaren sektorean 2018ko martxoaren 27rako, 10:00etatik 13:00era egingo dute greba.

Deialdia egin dutenen arabera, helburu nagusia da enpresaburuen elkarteek honako eduki hauek sartzea hitzarmen sektorialean:

“-Soldatak eta plusak igotzea eta konpentsazio-sistemak hobetzea.

“-Negozioak hasi zirenean plataformak proposatutako lizentziak eta baimenak.

-Aldi Baterako Ezintasunagatiko konpentsazioa hobetzea, baita lan-osasuneko gaiak ere.

-Zerbitzuen intentsitatea hobetzea.

-Adostutakoa aplikatuko dela bermatzea.

-Alde batera uztea berri nahi den hitzarmena okertuko dituzten proposamenak "".

Bizkaiko sektoreko enpresa-antolakundeek emandako datuen arabera, 1.315 langile daude sektorean, etxeko laguntzaileak gehienak, 34 udaletan. Zerbitzuak astelehenetik ostiralera ematen dira gehienbat, 08:00etatik 14:00etara. Tarte horretan, zerbitzuaren guztizko orduen % 75 sar daitezke. Zerbitzuaren eguneko iraupena 1 eta 3 ordu bitartekoa da; hala ere, 1 eta 2 ordu bitartekoa da ohikoa. Asteko iraupena, berriz, 1 eta 5 aldiren artekoa da, baina 3 eta 4 aldiren artekoa da ohikoa.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa eta osasuna. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea herritarren gainerako oinarrizko eskubideen kontrakoa izan daitekeenez, eta Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatuta dagoenaren arabera, gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak mantentzen direla ziurtatzeko neurri egokiak hartu behar dira, auzitan dauden eskubideetako bat bera ere gauzatu gabe gera ez dadin.

Edonola ere, aurreko premisa ondorioztatu ondoren, nabaria da oinarrizko eskubideak murriztuko dituen neurri orok proportzionaltasun-printzipioa zorrotz bete behar duela, eta, hori lortzeko, hiru betekizun edo baldintza bete behar ditu neurriak: hori aplikatuz gero proposatutako helburua lortu ahal izatea, edo "egokitasun-judizioa"; kasua aztertu ondoren helburu hori eraginkortasun berdinarekin lortzeko neurri apalagorik ez



dagoela ondorioztatu izana, edo "premia-judizioa"; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, "proportzionaltasun-judizioa, zehazki ulertuta". Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa eta ezinbestekoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhertasunez jokatzeko. Hori guztia dela-eta, ziurtatzeak berme gisa balio behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta; betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu egin beharko dela —utzi, Auzitegi Konstituzionalaren hitzetan— haien eskubideak grebaren bidez babesteak ezinbesteko zerbitzuaren hartzaileari zein zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien erreibindikazio edo eskakizunen arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, greba-deialdi honen aurrean, haren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan. Greba 2018ko martxoaren 27rako, 10:00etatik 13:00era egun horietan guztietan, izaera laguntzailea duen lehen-mailako arreta-zerbitzu batean; izan ere, eguneroko jarduerak egiteko autonomia mugatuta daukaten pertsona laguntzera dago bideratuta zerbitzua, arreta pertsonaleko laguntza eskaintzen baitzaie, etxean, bizilekuan bertan molda daitezela eta ingurunean gizarteratu daitezela ahalbidetzeko xedez. Banakako arretarako programetan oinarritzen da arreta hori; zehazkiago, eguneroko bizitzan egin behar diren lan jakin batzuk egiteko laguntza ematean. Hartzaileen % 60 baino gehiago mendekotasuna duten pertsonak dira, eta mendekotasun-graduren bat daukate (I., II. edo III. gradukoa).

Etxeko Laguntza Zerbitzua gizarte-zerbitzu bat da, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22.1.2. artikuluan jasotzen dena, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoan sartuta dauden zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen artean. Laguntza pertsonaleko, orientazioko eta egunerokotasuneko oinarrizko jarduerak zuzenean egiteko arretak hartzen ditu; hala nola, hauek: ohetik jaikitzea eta oheratzea, janzteia, etxea garbitzea, arropa garbitu eta lisatzea, ontziteria garbitzea, eguneroko higiene pertsonala, elikadura, medikazioa kontrolatzea, mugitzea eta joan-etorriak egitea, familiaren antolaketan laguntzea, elikagaiak erostea, janaria prestatzea. Horiez gain, beste jarduera osagarri eta beharrezko batzuk ere egiten dira, bai zerbitzuaren xedeak lortzeari begirakoak, bai etxetik kanpo laguntzeari begirakoak (eguneko zentroetara edo osasun-zentroetara joaten laguntzekoak). Bakarrik dauden edo mendekotasuna daukaten (gradu ezberdinetan) adinekoak dira zerbitzu horien onuradunak.

Konstituzioaren 15. eta 43.1 ataletan, bizitza, osotasun fisikoa eta morala eta osasuna babesten dira. Hain zuzen ere, herri-agintariei dagokie eskubide horiek bermatzea, prebentzio-neurriak ezarriz eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz. Greba egiteko eskubidea zilegi bada ere, eskubide horiek guztiak ez daitezke babesik gabe geratu. Babes hori, bestalde, grebarako eskubidearen edukia husteru irits daiteke nolabait, Konstituzio Auzitegiak xedatzen duen doktrinaren arabera izaera murriztailea baitauka. Ezarpen murriztaile hori areagotu egin daiteke, denborarekin justifikatu gabe areagotzen bada herritarren oinarrizko eskubideetan eragindako kaltea.







Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea garatuz, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua argitaratu da. Bertan, zerbitzu bakoitzaren ezaugarriak eta betekizunak ezartzen dira. Bada, Etxeko Laguntza Zerbitzuari dagokion fitxan zehazten da mendekotasun-egoeran dauden edo mendekotasun-egoeran egoteko arriskua duten pertsonak direla zerbitzuen hartzaileak, eta betekizunen artean eskatzen da pertsona horiek behar besteko laguntza eduki behar dutela, bizilekuan egoera egokian egon daitezen eta beren osasun-egoerak ez dezan behar izan osasun-erakundeen edo soziolaboralen etengabeko laguntza.

Alabaina, zerbitzu horien intentsitateak ez dauka eragin bera erabilzaile guztiengan, egunerokotasuneko jarduera instrumentalak egiteko autonomia-graduaren arabera baita hori. Hala, osasunerako eta osotasun fisiko eta psikikorako oinarrizko lanak egiteko orduan erabateko edo ia erabateko mugaketak dauzkaten pertsonak zalantza izpirik gabe erabili behar dituzte greba horrek eragingo dituen zerbitzuak.

Pertsona horiei besteak beste janari-zerbitzua ez emateak, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeko eta pertsona horiei arreta emateko abenduaren 14ko 39/2006 Legean aitortzen diren eskubideak urratzeaz gain, osasunerako arrisku-egoeran uzten ditu horiek. Are gehiago kontuan hartzen badugu elikadurarekin batera medikazioa ematen zaiela (kasuak kasu). Pertsona horien osasuna babesteko eskubidearen aurka egin lezake horrek, Konstituzioaren 43. artikuluan xedatzen baita botere publikoei dagokiela hura bermatzea, prebentzio-neurrien bidez eta prestazioa ziurtatuz.

Gauza bera esan daiteke higiene pertsonalarekin zerikusia duten zerbitzuei buruz, edota komunaren erabilerari eta, hala badagokio, maskuri- eta heste-hustuketari zein etxe barruan mugitzeari buruz, duten desgaitasun fisikoaren edo psikikoaren ondorioz beren kabuz molda ezin daitezkeen pertsonak dagokienean.

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikuluan, hiru mendetasun-gradu ezartzen dira, eta gradu horren arabera zehazten da mendekoen arreta. Hori horrela izanik, «mendetasun handia» (III. gradua) duten pertsonak egunero askotan behar dute laguntza eguneroko oinarrizko jarduera batzuk gauzatzeko, eta, beren autonomia fisiko, mental, intelektual edo sensoriala guztiz galdu izanaren ondorioz, beste pertsona baten edo batzuen etengabeko laguntza behar dute. «Mendetasun larria» dutenek (II. gradua), berriz, laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera aurrera eramateko, eta hori egunean bi edo hiru aldiz, baina ez dute behar kanpoko zaintzaile batek laguntzea; nolana ere, laguntza-premia zabalak dituzte autonomia pertsonalaren arloan. Azkenik, «mendetasun arina» dutenek (I. gradua) laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera aurrera eramateko, eta hori gutxienez egunean behin, edo tarteka laguntza mugatua behar dute, autonomia pertsonalarekin laguntzeko.

Mendekotasun-graduak kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da II. eta III. mendekotasun-gradua dutenei zerbitzuak ematea (gero zehaztuko dira zerbitzu horiek).

Grebaren deitzaileek eta greba-batzordeek eskaera hau egin dute: Aginduan zehaztea oinarrizko gutxieneko zerbitzuak eragiten dien langileen portzentajea edo kopurua; horrela, enpresek gutxieneko zerbitzuen alde bakarreko aplikazioak egitea saihestu nahi dute. Greba prozeduran bildutako dokumentazioa aztertu eta gero, zehazki EUDELez helarazitako komunikazioa, zera ondorioztatzen da: gobernu-agintaritzari honi





ezinezkoa zaio portzentaje hori kuantifikatzea; izan ere, ez dago nahikoa informazio, eta gainera funtsezko aldeak daude udalerrri bakoitzak eskaintzen duen zerbitzuan. Ondorioz, Agindua zehazten du, behar bezala arrazoituta, zeintzuk diren hartzaileak eta zer-nolako prestazio zehatzak eskaini behar zaizkien grebak dirauen bitartean. Ondorioz, ziurtasun eta segurtasun juridikoa sendotzearen alde oinarritzakoak diren prestazio sozialak zehaztea erabaki da, baita prestazio edo zerbitzu horien hartzaileak ere, hain zuzen II. eta III. mendekotasun-gradua duten erabiltzaileak, horiek baitira zaurgarritasun maila handienekoak.

Azaldutako guztia horrela, halako greba batean gutxienerako zerbitzuak finkatzen ez badira, litekeena da grebarekin lotu nahi diren hobekuntzak baino kalte handiagoak eragitea, zerbitzuaren erabiltzaileen osasuna arriskuan jar baitaiteke, sektoreak ematen duen zerbitzua oinarri-oinarritzakoa eta funtsezkoa den aldetik. Modu berean, gutxienerako zerbitzuak finkatzean, kontuan hartu dira grebarako aurreikusitako den iraupena eta egun bakoitzean greba egingo den ordutegia.

Hori guztia ikusita, agindu honetan zehazten diren gutxienerako zerbitzuak ezartzen ditu gobernu-agintaritzak, auzitan dauden eskubideen funtsezko edukia bateragarri egiten saiatzeko.

Lan Harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Dekretu Legearen 10.2 artikulua honako hau xedatzen du: «greba egiten denean edozein zerbitzu publiko edo onartuta dagoen eta geroraezina den beharrezko edozein zerbitzu eskaintzeko enpresetan, eta larritasun bereziko egoerak daudenean, gobernu-agintaritzak beharrezko neurriak hartu ahal izango ditu zerbitzuen funtzionamendua ziurtatzeko» eta «Gobernuak, era berean, horretarako beharrezkoak diren esku-hartezko neurriak har ditzake».

Konstituzionaltasuna aitortuta duen arau horretan (Konstituzio Auzitegiaren 11/1981 Epaia, apirilaren 8koa [1981\11 KAB]), Konstituzioaren greba-eskubideari buruzko 28.2 artikuluaekin bat etorritik (bertan honako hau ezartzen baita: «eskubide horren erabilera arautzen duen legeak beharrezko bermeak ezarriko ditu gizartearentzako oinarritzako zerbitzuen mantentzea ziurtatzeko»), gobernu-agintaritzari ematen zaio hainbat motatako berme-neurriak hartzeko eta greba-kasuan funtsezko zerbitzuei eusteko aukera, eta hori egiteko neurrietako bat administrazio-ebazpenaren bidez jarduerari eusteko ezinbesteko gutxienerako zerbitzuak ezartzea da, eta lan-prestazioa eskaini behar duten langileei haiek bete ditzaten eskatzea.

Horregatik, Lan Harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2. artikuluan aipatzen den prozedura bideratu da, eta, horrenbestez, Jaurlaritzaren erabakia doakien zerbitzuei eta langileei buruzko proposamenak egin ditzaten, entzunaldia eskaini diegu eragindako aldeei; hots, grebarako deia egin duten sindikatuei, Bizkaiko Etxeko Laguntza Zerbitzuko Enpresen Elkarteari, EUDELi eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Sailari.

Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 3.1 artikulua Lan eta Justiziako sailburuari ematen dizkio azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan jasotako eskumenak (24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen). Dekretu horren 16 artikuluan, Lan eta Justizia Saila sortzen da, eta, beste egiteko eta jardun-arlo batzuen artean, lan-arloko legeriak lan-harremanei buruz ezartzen duena egikaritzeko egitekoa





esleitzen zaio, eta, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuaren bidez eskuordetzen zaio zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzeraezineko zerbitzuak eskaintzeko ardura duten enpresa, entitate eta erakundeetan greba-eskubidea baliatzen dutenean autonomia-erkidegoko funtsezko zerbitzuei jardunean eutsiko zaiela ziurtatzeko beharrezko diren neurriak ezartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, Lan eta Justiziako sailburuak, Eusko Jaurlaritzak eskuordetuta, honako hau

### EBAZTEN DU:

**LEHENA.-** Greba egiteko deialdia jaso dute Bizkaiko Etxeko Laguntza Zerbitzuko langileek 2018ko martxoaren 27rako, 10:00etatik 13:00era egingo dute egun horietan guztietan. Bada, oinarritzko prestazioak eta hemen zerrendatzen diren gutxieneko zerbitzuak ematearen mende egongo da:

#### 1. Zerbitzu hauek egingo dira:

- 1.1. Janari-zerbitzua emango da. Ahal dela, aurretik egindako edo aurretik egiten diren elikagaietara joko da.
- 1.2. Zerbitzu hauek emango dira: eguneroko higiene pertsonalean lagunduko da, bai eta komuna erabiltzen ere, eta, hala badagokio, maskuri- eta heste-hustuketa egingo da; jaikitzen, oheratzen eta janzten lagunduko da, eta sendagaiak eta elikagaiak hartzen direla gainbegiratu da.
- 1.3. Oheratutako pertsonen kasuan, beharrezkoak dituzten jarrera-aldaketak egingo zaizkie.
- 1.4. Hitzordua aurretik ezarri bada eta atzeratu ezin badaiteke, osasun-zentroetara joaten lagunduko zaie erabiltzaileei.

2. II. eta III. mendekotasun-gradua duten pertsoneri bakarrik emango zaizkie zerbitzu horiek.

**BIGARRENA.-** 1. Zerbitzu horiek greba egin behar ez duten langileek emango dituzte, ahal izanez gero.

2. Langileen ordezkariari entzun eta gero, Enpresa Zuzendaritzak izendatuko ditu gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten langileak eta langile horiek txandaka bete behar dituzten eginkizunak. Nolanahi ere, aurreko artikuluan nahiz indarreko legedian ezarritako mugak errespetatu beharko dira.

Honako hurrenkeran izendatuko dira gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten pertsonak: lehenengo zerbitzu hau eman ohi duten eta grebarekin bat egingo ez duten langileei deituko zaie; modu horretan gutxieneko zerbitzuak betetzeko adina langilerik ez balego, greba egiteko asmoa duten langileen artean izendatuko dira gutxieneko zerbitzua eman beharrekoak.





**HIRUGARRENA.-** Agindu honen aurreko zenbakietan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu haiek egiteko izendatuta dauden langileen aldatuta edo geldialdien ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontraktatzat joko dira eta horiek egiten dituztenak erantzule izango dira, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

**LAUGARRENA.-** Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

**BOSGARRENA.-** Jakinarazten den egunean sartuko da indarrean agindu hau.

**SEIGARRENA.-** Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40 artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzietarako errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion Salan, ebazpena jakinarazten denetik kontaktzen hasita 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez daitekeela Lan Administrazioako Agintaritzan, agindua jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 23a.

  
  
**MARIA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LOPEZ**  
DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y JUSTICIA  
**LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUA**